GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN, GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ETA IZFEko ZAINTZA ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA (X22011)

1. - KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da zaintza zerbitzua ematea Foru Aldundiaren zentroetan hurrengo atalean zerrendatutakoetan.

Kontratazio honetan Miramon erakinaren zaintza zerbitzua sartzen da, non Aldundiaren bulegoez gain, Gipuzkoako Batzar Nagusien eta IZFE SA Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen egoitzak kokatuta baitaude. Horregatik, kontuan hartuta Foru Aldundiak, Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta IZFE SA sozietate publikoak 2008ko maiatzaren 7an sinatu zuten hitzarmena Miramon eraikinaren funtzionamendu gastu komunak banatzeko, kontratazio hau esparru akordio modura izapidetuko da. Horrela, behin hura amaituta, Foru Aldundiak, Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta IZFE SA sozietate publikoak esparru akordioan hautatutako enpresarekin esleituko dituzte dagozkien kontratu eratorriak, betiere, aipatutako akordioan ezarritako baldintzen arabera.

Kontratua gorantz edo beherantz aldatu daiteke, zerbitzu berriak sartzeagatik, edo lehendik sartuta dagoen zerbitzuren bat desagertu edo aldatzeagatik edo ezohiko zerbitzuengatik. Horretarako, kontratuan ezarriko dira aldaketa horiek arautuko dituzten baldintza ekonomikoak.

2. - ZERBITZUEN ZERRENDA

- Errotaburu – Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza.
- Koldo Mitxelena Kulturunea.
- Txara 2 – Gizarte Politikako Departamentuaren egoitza.
- Foru Jauregia.
- Txara 1 egoitza.
- J.S. Elkano aterpetxea - Hondarribia
- Igerain aterpetxea – Zarautz
- Txurruka aterpetxea - Orio
- Aingeru Guardako aterpetxea - Segura
- Familia Harrerako Zentroa - Urnieta
- Munto eguneko zentroa
- Miramon zentroa

3. - ZERBITZUAREN FUNTZIOAK

Hauek dira, besteak beste eta mugatzeko asmorik gabe, zaintza zerbitzuak barruan hartzen dituen zereginak:

– Zaintza jarduna, oro har. Horretarako, langileek uniformea, akreditazioa eta komunikaziorako bitartekoak eramango dituzte.

- Pertsona, jabetza, instalazio eta ekipoen babesa. Sarbideen kontrolari dagozkion zereginak, zentro bakoitzean zehaztuko diren jarraibideen arabera. Zeregin hauetan arituko diren langileek Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izango dute.

- Delituzko egintzak edo arau-hausteak saihestea, eta horretarako jardutea, indarrean dauden legezko xedapenen arabera.

- Suteen, uholdeen eta bestelako istripuen aurreko prebentzioa eta esku-hartzea, eta eraikina husten laguntzea.

- Instalazioetako alarmak erabiltzea.

- Delitugile eta arau-hausleak identifikatu, pertsegitu eta atzitzea, segurtasun indarrekin lankidetzan.

- Zerbitzua ematerakoan antzemandako gorabeheren edo anomalien berri ematea jabetzari.

4. - KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Enpresa esleipenduna subrogatu egingo da, gaur egun zerbitzu horiek ematen dituzten langileekiko betebeharretan, bakoitzari dagozkion kategoria, antzinatasuna edota plusak mantenduz. Langile horien zerrenda baldintza administratiboen agiriko X. erantsian dago.

Zerbitzuak hilero fakturatuko dira, urteko prezioa 12ren artean zatitzetik ateratzen den prezioan. Salbuespena dira ordutegia beharren arabera aldatu daitekeenean (kasu horretan lan egindako orduko fakturatuko da) edo udako ordutegia eta urteko gainerako hilabeteetako ordutegia nabarmen desberdinak direnean (kasu horretan hilabeteko prezioak desberdinak izango dira, uda garaia den edo ez kontuan hartuta).

Ezohiko zerbitzuak enpresa esleipendunak eskainitako prezioetan fakturatuko dira, egunez lan egindako ordu bakoitzeko. Zerbitzuak beste ordutegi batzuetan egiten badira, gehigarriak izango dituzte lan egindako ordu bakoitzeko: % 10ekoa gauez lan egiteagatik, % 8koa jai egunetan lan egiteagatik, eta, % 18koa jai egunez eta gauez lan egindako ordu bakoitzeko, sektoreko hitzarmenean adierazitako orduen sailkapenari jarraikiz. Ezohiko zerbitzutzat joko dira ustekabeko eta larrialdiko egoerak, aldian behingoak ez direnak; adibidez, zaintza egitea egunerokoak ez diren ekitaldietan eta egoeretan, edota sistemaren matxura batek eragindako zentroetan, paramentu edo sarbideak apurtuta dituztenetan, intrusioak edo sute batek eragindakoetan, edo segurtasuna bermatzeko zaintza zerbitzua behar duten beste arrazoi batzuek eragindako zentroetan; hala ere, kontuan izan behar da, egoera horiek, duten tipologiagatik, nekez gertatuko direla.

Ohiko zerbitzuaren handiagotze puntual bat badago edo zerbitzu berri egonkorrak ezartzen badira, hileko prezioak kalkulatuko dira, batez besteko prezioa oinarri harturik (prezio osoa) / (ordu kopurua); zerbitzu berrien kasuan, hilabete guztiak prezio berean kalkulatuko dira, ordutegiak hilabete batetik bestera aldatzen direnean izan ezik.

Zerbitzuen goranzko edo beheranzko aldaketen eragin ekonomikoa kalkulatzeko kontuan hartuko dira kategoria eta egoera bakoitzerako orduko prezioak.

Zerbitzu egonkor berririk egonez gero, hileko prezioak kalkulatuko dira eta hilero prezio bera fakturatuko da, ordutegi baldintzak hilabete batzuetatik besteetara aldatu egiten direnean salbu.

Foru Aldundiak zerbitzua aldatu edo zerbitzua emateari utzi diezaioke; horrelakoetan, idatziz jakinarazi beharko du, 24 orduko aurrerapenarekin zerbitzu aldaketa baldin bada, eta 7 eguneko aurrerapenarekin, berriz, zerbitzua murriztuko bada. Zerbitzu berri bat eskatzen denean, zerbitzu berri hori segurtasun indarrei jakinarazi behar bazaie, jakinarazpena gutxienez 3 eguneko aurrerapenarekin egingo da.

Esleipendunak solaskide bakar bat izendatuko du bere enpresak, kontratuaren exekuzioaren jarraipenaz eta koordinazioaz arduratzeko.

Enpresa esleipendunak bezeroaren arretarako zerbitzu iraunkorra izango du (24 orduz, urteko 365 egunetan), ustekabeko egoerei aurre egiteko. Eskaintzan zehaztuko da zerbitzu hau nola egituratuta egongo den, AKBAren estatistika koadroko 19.2 atalean adierazten den moduan.

Esleipendunak ordezkatu egingo ditu zerbitzua ematen duten langileen artean gerta daitezkeen ausentzia guztiak, ausentzien arrazoia edozein delarik ere.

Enpresa esleipendunak ordainduko ditu bere langileek Foru Aldundiaren jabetzako ondasunetan eragin ditzaketen kalte guztiak.

5. - ZERBITZUAK

Plegu honen I. eranskinean jasotakoak izango dira.

Donostia, 2022/06/11

Zerbitzu Orokorretako burua

Sin.: Francisco José Pérez Domingo

I. ERANSKINA

ZERBITZUEN XEHETASUNA, ZENTROEN ARABERA

Ikusi Kontratatzailearen Profilean fitxategia

X22011t_Servicios.pdf